


## HONA GU HEMEN – OLIVER JEFFERS



### SINOPSISIA:

«Kaixo eta ongi etorri planeta honetara. Lurra esaten diogu. Globo handi bat da, espazioan zintzilik, eta hor bizi gara gu». Halaxe hasten da Oliver Jeffers idazle eta ilustratzailearen maisulan hau, mundu honetara iritsi berriak jakin beharreko guztia azaldu nahian. «Ederra da atzera begiratzea eta gure planeta bere horretan ikustea, planeta soiltzat. Guztiz bestelako ikuspegia da; egiaz, balio du konturatzeko gure existentzia zeinen hauskorra den» -Sally Ride doktorea, astronauta eta fisikaria. «Hiru hitzen arabera bizi behar dugu, seme, ez besterik: errespetua, begirunea eta tolerantzia» - Oliverren aita, pertsona on-ona.